



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 7a

1. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituenak.  
Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Moderna Planari buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012), Kontuen Ganberak egina. Akats Zuzenketa  
(14. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituen.**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. proposamen hori 2013ko ekainaren 25eko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Nafarroako izaera bereziko fundazioaren estatuetan aurreikusiko da fundazioaren jarduereremua Nafarroa dela, eta haren gobernu, administrazio, kudeaketa eta ordezkaritzarako organoa hamaika kidek osatutako patronatu bat izanen dela.

Estatutuek, halaber, aurreikusiko dute patronatu-kideek, hautatuak izan aurretik, kargua onartu beharko dutela, eta Fundazioaren xedeak zintzo eta doan betetzeko konpromisoa hartuko dutela.

Patronatuak fundazioaren ordezkaritzari dagozkion eskumen guztiak edukiko ditu.”

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa

arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketan birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

### **2. ZUZENKETA**

#### **ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“2. artikulua. Patronatuaren funtzionamendua.

Nafarroako izaera bereziko Patronatuak bere kideen artetik, eta gehiengo soilaz, lehendakari bat, idazkari bat eta diruzain bat hautatuko ditu. Kargu horien iraunaldia Patronatuarena berarena izanen da.”

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bere-

ziko fundazio horiek izan ditzaketen birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

### 3. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI  
MANU AYERDI OLAIZOLA  
ETA PATXI LEUZA GARCÍA  
JAUNEK AURKEZTUA**

3. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Egungo testuaren ordeztzeko, ondoren proposatzen duguna jaritzeko eskatzen dugu. Hona testua:

“3. artikulua. Patronatuaren osaera

1. Patronatua ondoko hauek osatuko dute, patronatu-kide gisa:

a) Lehendakaritzaren titularra.

b) Nafarroako Parlamentuaren lau ordezkari, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hautatuak.

c) Langileen ordezkari bat, langileek beraien artean hautatua. Langile bakoitzak ordezkari bakar bati emanen dio botoa, eta boto gehien eskuratzen duena hautatuko da. Botoa pertsonala, sekretua, zuzeneko eta delegazina da.

d) Nafarroako Gobernuak hautaturiko bi ordezkari.

e) Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak hautaturiko ordezkari bat.

2. Halaber, Patronatura agertuko dira, salbu eta zuzenean dagozkien lan aferetan, Zuzendaritzarako eta Idazkaritzarako izendatutako pertsonak. Pertsona horiek hizpidea izanen dute, baina botorik ez. Ez zuzendaria, ez idazkaria ez dira patronatu-kide izanen.”

Zioak: Parlamentuak Patronaturako izendatutako kide gehienei eusten zaie, baina kideetako batzuk aldatzen dira. Nolanahi ere, kideen kopuruak bakoitia izaten jarraitzen du.

Zehazki, Kontuen Ganberak hautatutako ordezkaria kentzen da, zeren eta ulertzen baita, funda-

zioari hark kontu-ikuskaritza egin behar dionez gero, hobe dela hark kanpo-izaera independenteari eustea.

Langileen ordezkariak ordezkari bakarrera jaisten da, eta bira igotzen dira Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, arrazoizkoagoa irizteagatik.

Babesletzaren aipamena kendu da, zeren eta ez baitirudi beharrezkoa denik. Lege honen arabera, behin patronatu-kideak hautatuta, izendatuta geratuko dira, eta Patronatua eratuta geratuko da hasierako eratze-bilkura batean.

### 4. ZUZENKETA

**IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. artikulua. Patronatuaren osaera.

1. Babesletzari dagokio patronatu-kideak izendatzea, ondoko idatz-zatian aipatzen diren erakundeek aurkeztutako proposamenak jaso eta gero.

2. Ondoko hauek izanen dira patronatu-kideak:

a) Lehendakaritzaren titularra.

b) Bost patronatu-kide, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak izendapenerako proposatuko dituenak.

c) Fundazioko langile izan behar duten bi patronatu-kide; haien izendapena langileen zuzeneko bozketa sekretuaren bidez proposatuko da; hautesle bakoitzak hautagai bakar bati emanen dio botoa, eta boto gehien eskuratzen dutenak hautatuko dira.

d) Patronatu-kide bat, Nafarroako Gobernuak izendapenerako proposatuko duena.

e) Patronatu-kide bat, Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak izendapenerako proposatuko duena.

3. Halaber, Patronatura agertuko dira, salbu eta zuzenean dagozkien lan aferetan, Zuzendaritzarako eta Idazkaritzarako izendatutako pertsonak. Pertsona horiek hizpidea izanen dute, baina botorik ez. Ez zuzendaria, ez idazkaria ez dira patronatu-kide izanen.”

Zioak: Hobekuntza teknikoak; patronatu-kideek ez dute inoren “ordezkari” izan behar; besterik gabe, halako erakunde batzuek proposatuta izendatzen dituzte, baina gero patronatu-kideak askatasun osoz arituko dira. Ez da bidezko Kontuen Ganberako auditore bat izatea patronatu-

kide. Fundazioak izaera publikoa du (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 125. art.) eta Kontuen Ganberaren kontrolpean egon behar du. Erakunde publiko zein pribatu guztiek bezala, kontrolerako barne- eta kanpo-baliabideak izan behar ditu, baina nahasi gabe. Kontuen Ganberako auditore bat ezin da aldi berean epaile eta kide izan.

## 5. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“3. artikulua. Patronatua hautatzea.

Ondoko hauek hautatuko dituzte patronatu-kideak:

A) Sei kide Nafarroako Parlamentuak; parlamentari bakoitzak hautagai bakarra bozkatu ahal izanen du.

B) Bost kide Nafarroako Gobernuak.

Patronatu-kideek doan beteko dituzte haien eginkizunak, eta horretan sortzen zaizkien gastu behar bezala egiaztatuengatik, ordaina jasotzeko aukera izanen dute. Patronatu-kideek jasotzen dituzten zenbatekoak jendaurrean adieraziko dira.”

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketen birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

## 6. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“b) Nafarroako Parlamentuko parlamentu-taldek izendatutako ordezkari bana”

Zioak: Zuzenketak pluraltasuna bermatu nahi du Patronatuaren osieran; eta bermatu nahi du parlamentu-talde guztiek sarrera edukitzea Patronatuari buruzko informaziora, eta Patronatuaren jardueran eta erabakietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

## 7. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari g) letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren kontrako Borroka egiteko Sareak izendatutako ordezkari bat”

Zioak: Erabakiak hartzerakoan gizarte ekarpena eta ikuspegia indartzea.

## 8. ZUZENKETA

### ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketen birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan

egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

## 9. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI  
MANU AYERDI OLAIZOLA  
ETA PATXI LEUZA GARCÍA  
JAUNEK AURKEZTUA**

4. artikulua ordeztuko zuzenketa. Egungo testuaren ordeztu, ondoren proposatzen duguna jaritzeko eskatzen dugu. Hona testua:

“4. artikulua. Patronatu-kideak.

1. Patronatu-kideak dagozkien eginkizunetan hasiko dira kargua espresuki onartu eta onarpen hori jasota gelditu ondoren, pertsonak berak entitatearen helbide sozialean sinatutako agiri baten bidez.

2. Patronatu-kide bat ordeztuko edo kargutik kenduko da honako kasu hauetan:

a) Hiltzen denean edo hilda dagoela deklaratu denean; baita pertsona juridikoa iraungitzen denean ere.

b) Ezintasuna, desgaitasuna edo bateraezintasuna dagoenean, legean ezarritakoaren arabera.

c) Patronatuko kide hautatzeko arrazoia izan zen kargua uzten duenean.

d) Ebazpen judiziala dagoenean, legeak aurreikusten dituen kasuetan.

e) Agintaldia amaitzen denean.

f) Ukoa egiten duenean. Uko hori idatziz jasoko da.

g) Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak edo langileek dagozkien ordezkarietatik baten bat, edo guztiak, ordeztuko erabakia hartzen dutenean”.

Zioak: Babesletzaren aipamena kendu da, 3. artikulua zuzenketa aipatutako arrazoiengatik.

Iruñeko Udalak eta langileek ere beren ordezkarien ordeztzea erabaki ahal izatea jasotzen da g) letrari dagokionez.

## 10. ZUZENKETA

**IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Proposameneko 4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“4. artikulua. Patronatu-kideak

1. Patronatu-kideak dagozkien eginkizunetan hasiko dira kargua espresuki eta idatziz onartu ondoren.

2. Patronatu-kide bat ordeztuko edo kargutik kenduko da honako kasu hauetan:

a) Hiltzen denean edo hilda dagoela deklaratu denean.

b) Ezintasuna, desgaitasuna edo bateraezintasuna dagoenean, legean ezarritakoaren arabera.

c) Ebazpen judiziala dagoenean, legeak aurreikusten dituen kasuetan.

d) Agintaldia amaitzen denean.

e) Ukoa egiten duenean. Uko hori idatziz jasoko da”.

Zioak: Hobekuntza teknikoak. Izendapenaren mekanika 3. artikulua zuzenketa jasotzen da. Proposameneko Gobernuaren eta Parlamentuaren proposamenak aipatzen dira, baina gainerakoak ahaztuta; hamar eguneko epea ezartzen da, baina ez da ezartzen noiz hasten den kontaketa. Zentzugabea da aipatzea pertsona juridikoaren iraungipena, patronatu-kide guztiak pertsona fisikoak direlako, edo kargua uztea, ez direlako izendatzen inolako kargurengatik. Beharrezkoa da patronatu-kideak independenteak izatea eta proposatu dituenak bere zuzentziaz izendapena baliogabetzearen menpe ez egotea.

## 11. ZUZENKETA

**ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“5. artikulua. Patronatu-kide karguaren iraunaldia.

Patronatu-kidearen karguak legegintzaldiak adina iraunen du, eta hurrengo legegintzaldian berriarte luzatuko da”.

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketen birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

## 12. ZUZENKETA

### **BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluari g) letra gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testua:

“g) Dokumentazioa zaintzea, fundazioaren iturri den sozietate nagusia sortu zenetik . Nafarroako Kutxaren kasuan, Fundazioak haren jarduerari buruzko dokumentazio osoa zainduko du, jaio zenetik. Horretarako behar diren era guztietako kudeaketak egiten ditu”.

Zioak: Patronatua izaera bereziko fundazioaren gobernu- eta erabaki-organo gorena denez, erakunde nagusiaren jardueraren dokumentazioa zaindu behar du, sortu zenetik.

## 13. ZUZENKETA

### **ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8., 9., 10., 11., 12., 13. eta 14. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko

aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruzko foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketen birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

## 14. ZUZENKETA

### **FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA**

8. artikulua ordeztuko zuzenketa. Egungo testuaren ordeztu, ondoren proposatzen duguna jaritzeko eskatzen dugu. Hona testua:

“8. artikulua. Patronatuaren eskudantziak.

1. Patronatuari dagokio fundazioaren xedeak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, horien errendimendua eta erabilgarritasuna osorik mantentzea.

2. Patronatuak, fundazioaren gobernu-organo gorena den heinean, ahalmen osoa du fundazioaren interesekin zerikusia duten gai guztiei buruz erabakitzeke.

Eginkizun horien betetze arrunta eta Patronatuaren erabakien betearazpena lehendakaritzaren eta zuzendaritzaren esku egonen da. Patronatuak karguan aritzeko beharrezkotzat jotzen diren ahalmenak delegatuko dizkie edo, kasua bada, ahalordetze orokorrak edo bereziak egiten, salbu eta legearen edo estatutuaren arabera delegaezinak diren gaietan.

3. Besteak beste, honakoak dira patronatuaren eskudantziak eta ahalmenak:

a) Izaera bereziko fundazioaren estatutuak eta, kasua bada, haren aldaketak, onestea. Nolanahi ere, ezin izanen dira izan goragoko maila bateko

araudian xedatuaren aurkakoak eta, bereziki, lege honetan ezarritakoaren aurkakoak.

Patronatuak estatutuen proiektua edo aldaketak onesteko, patronatu-kideen gehiengo osoa beharko da.

Estatutu horiek eta beren aldaketak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta fundazioaren web orrian argitaratuko dira.

b) Aurrekontuak prestatzea eta fundazioaren urteko kontuak onestea, ekitaldi bakoitzean.

Aurrekontuetan jasotako gastu aurreikusiek ezin izanen dute gaintitu ekitaldirako aurreikusitako diru-sarreraren % 125a, Nafarroako Parlamentuak berariazko baimenik ematen ez badu.

Halaber, aurrekontuetan jasotako gastu aurreikusiek ezin izanen dute % 10etik gorako igoerarik izan aurreko ekitaldiko aurrekontuan jaso ziren gastu aurreikusiekin alderatuta, Nafarroako Parlamentuak berariazko baimenik ematen ez badu.

Aurrekontuak eta urteko kontuak onesteko, patronatuko kideen gehiengo osoa beharko da.

Aurrekontu eta kontu horiek, onetsi eta gero, publikoak izanen dira.

c) Jarduketa planak eta programak onestea, aurrekontuetan aurrekusiaren barrenean, eta plan edo programa horiek betearazteko egintzak, haien izaeragatik edo zenbatekoagatik patronatuaren eskumenekoak badira.

Jarduketa-plan eta -programa horiek onesteko, patronatuko kideen gehiengo osoa beharko da. Egintza horiek publikoak izanen dira.

d) Fundazioaren urteko kontuak auditatuko dituen sozietatea izendatzea. Izendapen hori eta auditoretzaren txostena publikoak izanen dira.

e) Fundazioaren egitura organikoa eta haren aldaketak onestea, bai eta haren unitateetatik edozein sortzea edo kentzea ere. Fundazioaren egitura bai eta haren langileen zerrenda ere publikoak izanen dira.

f) Jokaera Kode Etikoa onestea.

g) Ondasunak inbertitu, errealizatu, eraldatu eta gordailatzeko eta fundazioaren xedeetarako aplikatzeko erabakiak.

h) Zuzendaria hautatzea eta ordeztzea, eta haren ordainsariak ezartzea. Egintza horiek publikoak izanen dira.

i) Idazkaria hautatzea eta ordeztzea, eta haren ordainsariak ezartzea. Egintza horiek publikoak izanen dira.

j) Fundazioaren delegazioak eratzeko erabakia hartzea. Egintza hori publikoa izanen da.

k) Legearen edo estatutuen bidez, edo patronatuaren erabakia tarteko, esleitzen zaizkion gainerako ahalmenak, eta fundazioaren beste organoei esleitu ez zaizkien gainerako guztiak.

4. Aurreko zenbakian aurreikusitako ahalmenak ez dira inoiz ere delegatuko”

Zioak: Jotzen dugu aurrekontuen eta kasuko jarduketa-plan eta -programen onespina, bai eta entitatearenak diren urteko kontuen onespina ere, erabaki bereziki garrantzitsuak direla eta, horregatik, gehiengo absolutua behar dutela defendatzen dugu.

Bestalde, uste dugu Patronatuari ez zaiola bidea zabal-zabalik utzi behar fundazioaren ondarea erabiltzeko, eta arrazoizkotzat jotzen ditugun muga batzuk ezarri ditugu, bai aurrekontuko diru-sarreraren eta aurrekontuko gastuen arteko erlazioari dagokionez, bai aurrekontuko gastuen eta aurreko ekitaldiko aurrekontuko arteko erlazioari dagokionez ere.

## 15. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluari beste idatz-zati bat, 1 bis, gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“1. bis. Fundazioaren iturri den erakunde nagusiaren jarduerari buruzko dokumentazio osoa ordenatu, sailkatu eta kudeatzea, eta hura eskura jartzea Nafarroako Parlamentuko foru parlamentariarik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta bestelako erakunde publikoek eskatzen dutenean. Nafarroako Kutxaren kasuan, dokumentazioa da haren finantza jarduerari eta jardun duen arlo guztiei dagokiena.”

Zioak: Erakunde nagusiari buruzko informazioa, sortu zenetik, zaindu behar duen organoa denez, bere ardura izan behar da, halaber, dokumentazioa behar bezala ordenatuta egotea, erraza izan dadin hartara iristea, hala patronatu-kideek nola foru parlamentariarik eskatzen dutenean, haiek ere informaziorako sarrera izan behar dutelako gardentasunaren mesedetan.

**16. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

11. artikuluari beste idatz-zati bat, 4 bis), gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4. Era berean, Lehendakartzari dagokio garrantasunaren aldeko konpromiso bat, eta kontrol, analisi eta ikerketarako informazio egokia egon dadin begiratzea, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta bestelako erakunde publikoek eskatuta”

Zioak: Uste dugu funtsezkoa dela dokumentu-eta egintza-ondare guztia biltzea, Nafarroako erakunde publikoentzat eskuragarri egoteko moduan.

**17. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

14. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“14. artikulua. Idazkaria

1. Lehendakartzak proposatuta, Patronatuak idazkaria izendatuko du. Zuzenbideko lizentziadunaren edo graduaren titulua izan beharko du, eta bost urteko lanbide esperientzia frogatu.

2. Jasoko dituen lansariak publikoak izanen dira.

3. Idazkaritzaren titularra ez dagoenean, haren eginkizunak fundazioko langile batek beteko ditu, edo patronatu-kide batek, Patronatuak berak saiorako eta xede horretarako gaituko baititu.

4. Idazkariaren eginkizunak honako hauek dira: fundazioaren dokumentazio guztia zaintzea, eskatzen dizkioten txosten juridikoak egitea, lehendakariaren aginduz Patronatuaren bileren deialdia egitea, bilerei dagozkien aktak idaztea eta behar diren ziurtagiriak eta jakinarazpenak luzatzea”

Zioak: Hobekuntza teknikoak. Zentzugabea da idazkaria fundazioarekin lotuko duen araubidea mugatzea. Aukera utzi behar da bestelako langile batzuek ere, titularra ez dagoenean, idazkariaren eginkizunak bete ditzaten.

**18. ZUZENKETA****FORU PARLAMENTARI  
MANU AYERDI OLAIZOLA  
ETA PATXI LEUZA GARCÍA  
JAUNEK AURKEZTUA**

15. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Egungo testuaren ordeztzeko, ondoren proposatzen duguna jaritzeko eskatzen dugu. Hona testua:

“15. artikulua. Fundazioaren betebeharrak.

1. Izaera bereziko fundazioen organo guztiak indarrean dagoen legediari eta estatutuei lotuko zaizkie jarduteko, eta etikaren, gobernu onaren eta profesionaltasunaren printzipioak beteko dituzte.

2. Fundazioak urtero emanen dio bere jardunaren berri Nafarroako Parlamentuari, lehendakariak eginiko agerraldi batean.

Nafarroako Parlamentuak izaera bereziko fundazioaren organoen titularrak agertzeko eskatu ahaliko du. Titularrek laguntza eman beharko diote Parlamentuari, eta eskatzen dien informazioa eskuratu beharko diote.

Fundazioak, urtarrilaren, apirilaren, uztailaren eta urriaren azken eguna baino lehen, Parlamentuari hiruhileko informazioa gorriko dio, aurrekontu-exekuzioaren mailari buruzkoa.

3. Izaera bereziko fundazioen jarduera urtero fiskalizatu ahaliko du Kontuen Ganberak. Ganberari fiskalizazio lana egitea erraztuko zaio.

4. Fundazioaren jardueraren, bere patronatuaren, haien egintza, kontratu, hitzarmen eta dirulaguntza nagusien eta Foru Lege honetan aipatzen diren egintzen publizitatea fundazioaren web orri baten bidez egingen da.

Aipatu atarian argitaratuko da, halaber, fundazioaren funtsetatik, edozein kontzepturengatik, 15.000 euro baino gehiago jasotzen dituzten pertsonen zerrenda, eta kopuru horren kontzeptua eta zenbateko zehatza. Aurrekotik salbuetsita daude fundazioarekin lan harremana duten pertsonen ordainsariak, zuzendariarenak izan ezik”

Zioak: Artikuluan kontuak emateko beste tresna batzuk ezartzen dira, baina, horretaz gainera, egozia dirudi, nolahi ere, Parlamentuari informazioa emateko aldizkako errutina bat ezartzeak.



**19. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

15. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gedituko litzateke testua:

“15. artikulua. Nafarroako Fundazio Bereziaren eginkizunak.

Nafarroako Fundazio Bereziaren eginkizunak izanen dira Nafarroako Kutxa kreditu-entitate gisa desegitetik eratorritako ondasunak eta aktiboak edukitzea eta administratzea”.

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketan birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

**20. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

16. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“16. artikulua. Nafarroako Fundazio Bereziaren ondasunek sortzen dituzten era guztietako errenten erabilera.

Nafarroako Fundazio Bereziaren ondasunak kudeatu edo xedatetik eskuratzen diren errenta eta mozkin guztien xedea izanen da Nafarroako Kutxaren gizarte ekintza mantentzea; eta soberakina, osorik, Nafarroako Gobernuaren eskuetan u-

tziko da, gizarte, kultura eta ikerketa politketan, behar bezalako aurrekontuekin, erabil dezan”.

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketan birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

**21. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Beste batzuekin ordezkutzen dira.

**22. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Lehen xedapena aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Lehena. Foru lege honetan xedatzen ez den orotan, fundazioei aplikatzekoa den foru araubideari jarraikiko zaio”.

Zioak: Testuaren gainerakoak ez du inolako lege-loturarik gehitzen.

**23. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Proposameneko bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Ezertan ukatu gabe Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganberaren kontrola, foru lege honetan eta legegintzan oro har ezartzen den moduan, izaera bereziko fundazioen jardueraren autonomia bermatzen da, gainerako edozein erakunde publikorekiko”.

Zioak: Erredakzio egokiagoa.

**24. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Proposameneko hirugarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hirugarren xedapen gehigarria.

1. Foru Lege honek arautzen dituen izaera bereziko fundazioak, Nafarroako edozein administrazio publikori dagokion patronatua badute, fundazio publikotzat joko dira.

2. Edozein kasutan ere, Nafarroako Foru Komunitatea jarduera-eremu duten izaera bereziko fundazioek Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak fundazio publikoentzat gardentasun aktiboari buruz xedatzen dituenak bete beharko dituzte.

Zioak: Hobekuntza teknikoa. Argi geratu behar da Nafarroako administrazio publikoek sortzen dituzten fundazioek izaera publikoa dutela.

**25. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarri baterako zuzenketa.

“Nafarroako Fundazio Bereziaren patronatuaren lehen eginkizuna izanen da haren ondasunen eta betebeharren inbentario edo balantze osoa eta zehaztua onestea”.

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako

ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketen birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

**26. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarri baterako zuzenketa:

“Nafarroako Fundazio Bereziaren jarduera urteko aurrekontuen arabera izanen da. Horien garapena Kontuen Ganberaren auditoretzaren pean jarriko du”.

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketen birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

**27. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen gehigarri baterako zuzenketa.

“Nafarroako Fundazio Bereziaren jarduera urteko aurrekontuen arabera izanen da. Horien garapena Kontuen Ganberaren auditoretzaren pean jarriko du”

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketen birtualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

**28. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen gehigarri baterako zuzenketa.

“Nafarroako Fundazio Bereziak uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusten den fundazioen araubide fiskal berezia eskatuko du”

Zioak: Nafarroako Fundazio berezia jadanik badago, baina foru lege honetan xedatutakora egokitu behar da haren araubidea.

**29. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Lehen, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorrek kentzeko zuzenketa.

Zioak: Beste batekin ordeztu dira.

**30. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Proposameneko lehen xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lehen xedapen iragankorra.

1. Nafarroako Kutxa Fundazioak bere estatutuak foru lege honen xedapenetara egokitu behar ditu, gehienez ere hiru hilabeteko epean, indarra hartzen duenetik.

2. Egokitzapen hori egin ezean, hiru hilabeteko epea iragaten denean indarririk gabe eta aplikaziorik gabe geratuko dira foru lege honen xedapenen aurka doazen bere estatutu-xedapen guztiak.

3. Estatutuen egokitzapena onesten denean, eta, edozein kasutan ere, foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epea betetzean, Nafarroako Kutxa Fundazioaren zuzendaritza organoetako kideek beren karguak utziko dituzte”

Zioak: Foru legearen aplikazioa bermatzeko hobekuntza teknikoa.

**31. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Proposameneko bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bigarren xedapen iragankorra. Izendapen proposamena egin behar duten erakundeek patronatuko-kideak hautatuko dituzte, gehienez ere, hiru hilabeteko epean, aurreko xedapen iragankorrek aipatzen duen estatutu-onespenetik edo -egokitzapenetik kontaktzen hasita, eta, edozein kasutan, sei hilabeteko epean, gehienez ere, foru lege honek indarra hartzen duenetik”

Zioak: Hobekuntza teknikoa.

**32. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa.

“Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean Nafarroako fundazio berezia egokitu dezan foru lege honetan ezarritakora.

Zioak: Nafarroako izaera bereziko fundazioa bat baino ez da, eta ez da gehiago izan behar; berariazko legedian, fundazio mota horietarako ezarritakoak arautuko du, eta bertan lehenagoko aurrezki kutxetatik datozen aktiboen kudeaketa ematen eta ezartzen zaio. Halaber, fundazioei buruz foru legedian ezarritakoak arautuko du. Hori horrela, Nafarroako izaera bereziko fundazioa arautzeko legeak bakar-bakarrik arautuko du aipatu arauetan agertzen ez dena; alegia, izaera bereziko fundazio horiek izan ditzaketan bertualitate bereziak.

Beraz, zentzugabea da fundazioak zuzendaritza organoak edukitzea, edo lehendakaritzaren garrantzia patronatuaren beraren garrantziaz apartekoa izatea, edo patronatuari kasuko estatutuetan egon behar diren zereginak edo araudiak esleitzea.

Era berean, neurritik kanpo dago, erabat, patronatua bezalako organismoetarako kode etiko bat onesteko aurreikuspena, patronatu-kideek doako dedikazioa dutelako.

**33. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Laugarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarrena. Nafarroako Kutxaren dokumentazio eta jarduera guztia, sortu zenetik, zaintzeko eta nafar gizartearen eskura jartzeko betebeharra gauzatu ahal izateko, Nafarroako Gobernuak eta Fundazioak berak bidezko diren kudeaketa guztiak eginen dituzte erakunde nagusiarekin, Caixabankekin eta erakunde publikoekin.

Edozein kasutan ere, Nafarroako Gobernuak eta Fundazioak berak aipatu prozesua gehienez ere sei hilabeteko epean bukatuko dute, lege hau onesten denetik.”

Zioak: Parlamentu-talde honen iritziz, ezinbestekoa da beharrezkoak diren jarduketa guztiak abian jartzea, Nafarroako Kutxaren dokumentazio osoa, hura sortu zenetik, aipatu fundazioan zainduta egon dadin eta nafar gizartearen eskura jar dezaten bermatzeko.

**34. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Azken xedapenetan lehena aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Azken xedapenetan lehena.

Indarrak gabe geratzen da Nafarroako Aurrezki Kutxako zuzendaritza organoetarako buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea.

**35. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Izenbufura aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“Nafarroako izaera bereziko fundazioaren funtzionamendua arautzen duen Foru Legea.”

Zioak: Nafarroan izaera bereziko fundazio bat dago eta ezin da gainerako beste bat izan, mota horretako fundazioak, uztailaren 9ko 11/2010 Errege Dekretuan, otsailaren 3ko 2/2012 Errege Dekretuan eta azaroaren 14ko 9/2012 Legean xedatutakoaren ondorioz sortuak, aurrezki kutxak eraldatzeagatik sortu ziren, eta hori gertatu da jadanik, eta ezin da berriro gertatu.

**36. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK  
AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Behin Nafarroako Aurrezki Kutxa izaera bereziko fundazio bihurtuta, bidezko da aipatu fundazioaren funtzionamendua arautzea.

Nafarroak eskumenak ditu aurrezki kutxen arloan, Lorafnaren aurrekoak zein Lorafnak berak 56.1 artikuluan biltzen dituenak; baina eskumen horiek

ezin zaizkio aplikatu izaera bereziko fundazioari, entitate juridiko hori ez delako aurrezki kutxa bat.

Izaera bereziko fundazioaren izaera juridikoa eta eginkizunak dira Nafarroako Aurrezki Kutxa kreditu entitate gisa desegin ondoren gelditu diren aktiboak edukitzea.

Izaera bereziko fundazio horri aplikatuko zaizkio, hura sortu duten xedapenez gain honako hauek: uztailaren 9ko 11/2010 Errege Dekretua, otsailaren 3ko 2/2012 Errege Dekretua eta azaroaren 14ko 9/2012 Legea, Nafarroako fundazioei buruzko araudi orokorra, hala Foru Berrikoa, eta 44.enetik 47. legera, nola Fundazioen eta babes jardueren uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta hura garatzen duten arauak, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 125. eta 126. artikulak.

Nafarroako Gobernuak, eskubide historikoen-gatik berezkoak dituen eskumenak erabiliz, izaera bereziko fundazioa sortu zuen. Fundazioak Caixa Banken akzioen titulartasuna du, eta Nafarroako Aurrezki Kutxa kreditu entitate gisa desegin ondoren gelditu diren bestelako aktiboena ere bai. Lege honen xedea da aipatu fundazioa demokratizatea, duen funtzionamendua ikuspegi demokratikoarekin arautzea, Nafarroako Foru Komunitateari dagokion entitatea den heinean, modu argian eta austeritatez. Fundazio honek ez du patronatuaz besteko organorik behar, eta ez du zuzendaritzaren edo beste inolako organoren organigramaren premiarik”.

Zioak: Demokraziaren eta austeritatearen irizpideekin, ez du justifikazio politikorik egitura konplexu bat izateak Nafarroako Aurrezki Kutxa kreditu entitate gisa desegin ondoren gelditu diren aktiboak administratzeko.

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Moderna Planari buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012), Kontuen Ganberak egina.**

**AKATS ZUZENKETA**

Akats zuzenketa honen bidez, Kontuen Ganberak egindako Moderna Planari buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012) argitaratzean izandako akats bat zuzendu nahi da.

2013ko azaroaren 28ko 140. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, 23.

orrialdean agertzen zen taularen ordean, orain argitaratzen den beste honek agertu behar zuen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ESPARRUA	ADIERAZLEA	Abiapuntua	Aurreko datua 12/11/6	GAUR EGUN 13/1/31	HELBURUA 2015	HELBURUA 2020	HELBURUA 2030
HEZKUNTZA	PISA puntuak <small>Iturria: PISA</small>	502 <small>2006. urtea</small>	505 <small>2009. urtea</small>	505 <small>2009. urtea</small>	510	525	550
	Ingelesen B2 maila duten 18 urtekoak (%) <small>Iturria: kalkulu propioa</small>	% 7 <small>2010. urtea</small>	% 7 <small>2010. urtea</small>	% 7 <small>2010. urtea</small>	% 30	% 50	% 90
	Goi mailako tituludunak eta LH II dutenak (%) <small>Iturria: Hezkuntza Ministerioa eta Naf. Gob. (&lt;2009) / Eurostat (&gt;2009)</small>	% 36,0 <small>2007. urtea</small>	% 39,7 <small>2011. urtea</small>	% 39,7 <small>2011. urtea</small>	% 40	% 45	% 55
BERRIKUNTZA	% Inversión en I+D+i <small>Iturria: INE</small>	% 1,92 <small>2008. urtea</small>	% 1,97 <small>2010. urtea</small>	% 2,05 <small>2011. urtea</small>	% 2,20	% 3,00	% 4,00
	Patente kopurua, guztira <small>Iturria: OEPM</small>	172 <small>2008. urtea</small>	176 <small>2011. urtea</small>	176 <small>2011. urtea</small>	285	410	844
	Berrikuntza indizea eta postua European <small>Iturria: Eurostat</small>	0,48 y 76 <small>2006. urtea</small>	0,53 eta >60 <small>2009ko kalk.</small>	0,529 eta 53 <small>2011. urtea</small>	0,51 eta 60	0,60 eta 50	0,70 eta 35
NAZIO-ARTEKOTZEA	Esportazioak (euroak, milioitan) <small>Iturria: IEN</small>	5.450 <small>2009. urtea</small>	6.827 <small>2011-09 - 2012-08</small>	6.503 <small>2011-11 - 2012-11</small>	6.500	8.000	10.000
	Enpresa esportatzaileen kopurua <small>Iturria: ICEX - Estacom</small>	711 <small>2009. urtea</small>	801 <small>2011-09 - 2012-08</small>	813 <small>2011-12 - 2012-11</small>	1.000	1.300	2.000
	Enpresa multinazionalen kopurua <small>Iturria: Cámara Navarra / Sodena</small>	133 <small>2010. urtea</small>	133 <small>2010. urtea</small>	133 <small>2010. urtea</small>	150	175	200
ENPLEGUA ETA ENPRESA	Lana dutenen kopurua <small>Iturria: IEN - EPA</small>	284.000 <small>2009. urtea</small>	262.700 <small>2012ko BAI (3. h.)</small>	254.200 <small>2012ko BAI (4. h.)</small>	298.000	331.000	365.000
	Ekoi-zena, langileko (eurotan) <small>Iturria: IEN</small>	61.000 <small>2009. urtea</small>	67.867 <small>2011. urtea</small>	67.867 <small>2011. urtea</small>	68.000	73.000	85.000
	50 langile baino gehiagoko enpresak (%) <small>Iturria: INE</small>	% 1,30 <small>2009. urtea</small>	% 1,21 <small>2011. urtea</small>	% 1,19 <small>2012. urtea</small>	% 1,60	% 2,00	% 2,50
	Enpresa berrien kopurua, urtean <small>Iturria: IEN</small>	943 <small>2009. urtea</small>	942 <small>2011-08 - 2012-09</small>	958 <small>2011-12 - 2012-11</small>	1.100	1.250	1.600
OPAROTASUNA ETA KOHESIO SOZIALA	BPG per capita: postua <small>Iturria: Eurostat</small>	32 <small>2007. urtea</small>	37 <small>2009. urtea</small>	37 <small>2009. urtea</small>	30	25	20
	BPG per capita: erosahaltenaren parekotasuna <small>Iturria: IEN</small>	30.614 <small>2007. urtea</small>	32.900 <small>2009. urtea</small>	32.900 <small>2009. urtea</small>	34.000	37.000	43.000
	Aberastusunaren banaketa <small>Iturria: IEN</small>	28 <small>2007. urtea</small>	28 <small>2007. urtea</small>	28 <small>2007. urtea</small>	27	26	23
	Bizi-kalitatea (Giza Garapenaren Indizea) <small>Iturria: IEN, PNUD e INE</small>	0,9720 <small>2007. urtea</small>	0,9720 <small>2007. urtea</small>	0,9720 <small>2007. urtea</small>	0,9725	0,9790	0,9870
	Ingurumenaren iraunkortasuna <small>Iturria: Balance Energético de Navarra (G.N.)</small>	2.132 <small>2008. urtea</small>	2.029 <small>2010. urtea</small>	1.970 <small>2011. urtea</small>	1.900	1.650	1.450



